



# ODOL SARIA

Azaroaren 22an epela zen arratsa, oso epela; Euskal Herrian garai horretan maiz izaten diren epel horietakoa. Udazkenean barrena arront abiatu ere, negu zantzurik ez giroan.

Bilbotik gentozen herrenka, auto eta autobus ilara azkengabea. Lekeitio ondoan, aldapan behera aurrerago ezin joan; eta gure autobusa ere hantxe gelditu da, Santiren jaioterrira ezin sarturik. Bildutako osteen gaitzak, are hurbildu ere ezinik.

Lerrokada luze hartako autobusen argi gorriek, alegiazko itxura ematen zioten ikuspegiari. Eta, bihotzean min, (sekula negar egin ohi ez duten jende bortitzek ere ordu garratz horietan malkoak isuri baitzituzten), oinez abiatu gara. Oihu bakar bat urratzen zituen bazterrak: «Gora ETA militarra!». Ez zen aldapan beherakoan beste garrasirik entzuten.

Behin, eta berriz, eta hamaika aldiz, hitz horietzek errepi-katzen ziren soilki.

Multzoetan elkarrizketak urri: «Hauxe da, zoritxarrez, askatasunerako bide bakarra. Herri guztiak odoletan jaiotzen dira mundura; eta gureak ere jaiotzen bada, ateka latz horretatik pasa behar du». Eta denek onartzen zuten hori. Bai. Baina... bihotzean min. Santi ahulen defenditzailea zelako, Santi pertsona ezin hobea zelako. Bere helburuekiko gogorra izanik ere, Santi kopeta zabalekoa zelako. «Gure arteko onenatariko bat» —aitortzen zuten denek. «Beti bezala».

«Odol saria», alegia. Herriek, beren buruaz jabetzeko eta nazioen artean kidegata hartuak izateko. Laspiur-ek aspaldian idatzi zuen bezala, «odol saria» ordaindu behar dute.

Hots, hantxe, Lekeitio mindu hartan, Laspiur bera topatu





“Odol saria” ordaintzea tokatu zaito Xantiri eta beste hainbati, askatasunaren bidea erakusteaatik Euskal Herriari.

nuen:

— Oroitzen al haiz, Imanol? Aspaldian, behar bada oroitu ere ez haiz egiten, «odol saria» aipatu huen hik.

— Bai horixe. Ongi oroitzen nauk. Eta halaxe duk. Baina bazirudik listoia gero eta gorago jarri nahi digutela euskaldunoi...

Santik bazekien halako batez hau gerta zekiokela. Mikel Goikoetxearen heriotz ondoko egunetan agurtu nuenean, argi-eta-garbi esan zidan: «Iparraldeko ekintzetan horren nabarmen agertuz arrisku larriak hartu ditudala? Badakit. Baina beldurrak ez nau helburutik desbideratuko. Bai nik, eta bai etxekook, jakinaren gainean egin dugu aukera hau. Eta datorrena datorrelarik ere, eutsi egingo diogu bideari».

Zuzentasun hori, ustelkeriak itozten gaituelarik, bere odolaz ordaindu du Santik. Beste asko Herreran eta Alcalan, edo deserri azkengabeen, edo drogaren ifernuan, edo GAL-en eskuetan, edo torturapean, edo lantegi barruan metrailakaturirk, edonolako ezintasun eta zapalketa motatan ordaintzen ari diren bezala. Zinez, galesti ordaintzen ari da gure herri bere «odol sari» madarikatua. Guztiz galesti. Herri zapaldu berak isuri baitu bere odola, behin eta berriz. Madriletikako zapaltzaileen eskuetan mende eta erdi gogor honetan.

Gure herriaren parte handi bat, eguneroko borrokan ikus daitekeenez, gertu dago sufrimendu latz horiek guztiak jasateko. Olaskoaga, Santi eta Gonzalez Larrazabal izan dira azkenekoak. Eta horixe da gure garaitzapearen bermerik gotorrena. Herri batek askatasuna lortzea erabaki duenean, ez dago genozidioaz beste biderik herri hori zanpatzeko.

Baina, otoi, aberkideok: kontuz! Gure herria, ongi dakigunez, geure begien bidez ere ikusi dugunez, behin eta berriz izan ez dadin... SALDUA! Odol hori guztia alferrik isuria izan ez dadin; ez utz gure herriaren lema edonoren eskuetan. Eutsi INDEPENDENTZIAREN LEMARI!. Santik egin zuen bezala. Telesforok egin zuen bezala, eta dilistaplater baten truke saldu ez diren guztiek egin duten bezala.

Gure martirien helburua, **independentzia** zen; eta ez «vascogado-filia» foruzale («foralista» hobe, Foruen bar-

kapenarekin!) merke bat. Beren biziak hondatu eta galdu dituzten Santi guztiak, abertzaleak ziren, eta ez karlista-berrriak. Vascongetako aparato politikoetan itsatsi diren **karka probintzikoi** guztiei esan behar diegu: «Kanpora!!» Odol sari latzaz erosten ari garen askatasuna, erokeria litzateke sasi-abertzaleen eskuetan jartzea. Garaia dugu karlistmoari eta neo-karlistmoari uko osoa emateko.

Baina Santiri bereziki gagozkiolarik, beronen helburua disimulatzerik ez dago. Alde batetik, eta hortik egun haue-tan entzun dugunaz bestalde, Santiren helburua ez zen «el logro de las reivindicaciones democráticas pendientes»: Euskal Herriaren **batasuna, euskalduntasuna eta askatasuna** lortzea baizik. Esan beharrik al dago Santi abertzalea zela?

Baina Santi sozialista zenez, gure herriari aginte egiazkoa eman nahi zion; eta, hortaz, **aginte ekonomikoa** eman nahi zion. Eta, hitz batez, **askatasuna sozialismotik at** zer izan ote daitekeen ez zuen konprenitzen; nik neuk ere konprenitzen ez dudana bezalaxe.

«Odol saria», bego. Eta, hortaz, eta Santik hau bazekien, nekez aurkituko dugu ontzi horretan zapatillak sekula erantzi ez dituenik. Santik gudariak maite zituen errotik.

Baina zapatillak, eta besaulkiak, eta areto dotoreekiko tentazioa uztea asko uztea bada ere (geure inguruan ikusten duguna lekuko!), aski ez da. Santiren ezpalekoak behar ditugu gidari: euskal herriaren errotik sustraituak. Zapalketaren haizea zakarregia da sustrai horiek guztiz sendo ez dituzten jendeengan gure ontzi mundua uzteko.

Har bitzate gure lema eta erremalak gure herriaren **izana eta nahia** zinez senditzen eta zerbitzatzen dituzten abertzale osoek. Santiren ezpalekoek, hitz batez.

Beste hark esan zuen bezala: «belarriak dituenak, entzun beza».

**TXILLARDEGI**